

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA SAILA

1730

AGINDUA, 2023ko martxoaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, 2022ko azaroaren 30eko Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez, deialdia egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesurako.

Hutsak aurkitu dira Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduan. Agindu horren bidez egin zen deialdia, Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten kidegoko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesurako (2022ko abenduaren 12ko EHAA n argitaratu zen). Huts horiek direla eta, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 18.2.c artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, dagozkion aldaketak egingo dira.

Lehenengoa.– 2022/5345 (37/5) orrialdean, 1.3 oinarrian, honako hau dio:

1.3.– Txanda irekiko 183 plazarako deialdia egiten da, A taldekoak, A2 azpitaldekoak. Espezialitatearen eta irakasle-lanpostuen hizkuntza-eskakizunaren arabera banaketa honako hau da:

Honako hau esan behar du:

1.3.– Txanda irekiko 179 plazarako deialdia egin da, A taldekoak, A2 azpitaldekoak. Honelakoa da plazen banaketa, espezialitatearen eta irakasle-lanpostuen hizkuntza-eskakizunaren arabera:

Bigarrena.– Espezialitatearen eta irakasle-lanpostuen hizkuntza-eskakizunaren arabera banaketa osoa argitaratuko da. Honako hau da:

Espezialitatea	1. HE	2. HE	Plaza kopurua
Arte Grafikoetako produkzioa	6	2	8
Ibilgailuen mantentze-lanak	12	10	22
Sukaldaritza eta Gozogintza	13	14	27
Jatetxe-arloko zerbitzuak	5	1	6
Zurgintzako eta altzarien fabrikazioa eta instalazioa	2	11	13
Makinen mekanizazioa eta mantentzea	18	42	60
Soldadura	9	9	18
Patroigintza eta Jantzigintza	1	0	1
Estetika	6	5	11
Ile-apainketa	9	4	13
Plaza-kopurua, guztira	81	98	179

Hirugarrena.– 2022/5345 orrialdean (37/27), 9. Oinarriko bigarren paragrafoan, honako hau dio:

Karrerako funtzionario izateko destinoen behin-behineko esleipena hautatuak izan diren espezialitatean egingo da, prozesuan lortutako puntuazioaren arabera. Era berean, deitzen diren lanpostuak betetzeko hurrengo lehiaketetan parte hartu beharko dute, Hezkuntza Sailak zuzenean kudeatutako ikastetxeetan eta hautatuak izan diren espezialitatean behin betiko lehen destinoa lortu arte.

Honako hau esan behar du:

Karrerako funtzionario izateko destinoen behin-behineko esleipena egiteko, kontuan hartuko da hautagaiak zein espezialitateko lanpostutarako hautatu diren, lanpostu horietara esleitzeko, edo espezialitate horren bidez lor daitezkeen beste lanpostu batzuetara, prozesuan lortutako puntuazioaren arabera. Era berean, lanpostuak betetzeko hurrengo lehiaketetan parte hartzeko obligazioa izango dute aurrerantzean, harik eta lehenengo behin betiko destinoa lortzen duten arte, Hezkuntza Sailak zuzenean kudeatutako ikastetxeetan eta hautatuak izan diren espezialitateko lanpostuetan edo espezialitate horren bidez eskura daitezkeen beste lanpostu batzuetan. Adierazitako esleipen- eta lehiaketa-prozeduretan, zehaztu egingo da zer lanpostu eta espezialitatearen bidez eskura daitezkeen postuak.

Laugarrena.– Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsua aurkez dakiok Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edota, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.